

HIZKUNTZEN ANTOLAKETA BURMUIN ELEBIDUNEAN: GAZTELANIA-EUSKARA AFASIKO BATEN KASU-AZTERKETA

Tesiaren egilea: Amaia Munarriz Ibarrola

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Tesi-zuzendaria: Maria Jose Ezeizabarrena

Tesiaren laburpena:

Tesi honen xede nagusia hizkuntzak eta hizkuntza-osagaiak elebidunen burmuinean nola antolatzen diren ezagutzea da, eta horretarako datu bila gaztelania-euskara aldebereko elebidun afasiko baten kasu-azterketa longitudinala burutu dugu. Afasia elebarkarrean eta elebidunean proposatu izan diren hizkuntza-zailtasunen ikerketa-galdera, emaitza eta teorien berri emanda, euskara-gaztelania afasia kasu batean hizkuntza-arazoak nola azaleratzen diren behatu da bi hizkuntzetan. Hain zuzen, ikerketa longitudinal honetan bat-bateko elkarrizketa eta hainbat ariketa esperimental konbinatu dira, askotariko ekoizpen- eta ulermen-datuak biltzeko euskaraz eta gaztelaniaz, antzeko materialekin. Ikerketa-galdera nagusiak bi hauek dira: a) nola azaleratzen dira afasia-sintomak gaztelaniaz eta euskaraz? Eta b) mota eta maila berean eragiten al die hizkuntza-nahasmenduak hiztun elebidunen bi hizkuntzei?

Ikerketa honetan ikusi da burmuineko lesioak ez diela eragin hizkuntza-osagai guztiei modu berean, izan ere ikusi baita maila semantikoa urratu gabe egon arren, maila lexiko, fonologiko eta morfosintaktikoan urraduraren sintomak azaleratu direla. Hizkuntza-maila horietan ere arazoak espezifikoak dira, esate batera, hitzak berreskuratzeko prozesuei dagokienez, arazoak irudikapen lexiko-fonologikoa eskuratzean, kodetze fonologikoan, biltegi fonologikoan eta kodetze fonetikoan azaleratzen dira, ez ordea irudikapen semantikoa eskuratzean edo konbertsio akustiko-fonologikoan. Maila morfosintaktikoan zailtasun nabarmenena egitura morfosintaktiko jakin batzuen ulermenean azaleratu da euskaraz, hain zuzen, ezker-periferiarako mugimendua duten egituretan (erlatiboak, perpausak, galderak eta egitura topikalizatuak zenbaitetan).

Halaber, tesi honetan ikusi da arazoak ez direla maila eta mota berekoak, bi hizkuntzetan morfosintaxian aurkitutako alde kualitatiboek (ulermen-arazo zehatzak euskaraz soilik) eta maila lexiko eta lexiko osteko fonologikoko alde kuantitatiboek erakutsi dutenez (sintomak ugariago euskaraz).

Hainbat faktorek dute eragina euskarazko eta gaztelaniazko jokabidearen artean ageri diren antzekotasun eta desberdintasunetan, eta horietatik hizkuntzen (eta

egituren) arteko distantziak garrantzi handia du. Oro har, sintomak antzekoagoak dira euskaraz eta gaztelaniaz antzekoen diren hizkuntza-mailetan, hain zuzen, hotsei dagokien maila fonetiko-fonologikoan, baita maila lexiko-fonologikoan (kognatu hitzetan) ere. Aldiz, bi hizkuntzetako jokabidean aldeak nabarmenago dira euskaraz eta gaztelaniaz ezaugarri desberdinak dituzten osagaietan, hain zuzen, maila morfosintaktikoan (euskara SOV hizkuntza da eta kasu-sistema ergatibo-absolutiboa du vs gaztelania SVO hizkuntza da eta kasu-sistema nominatibo-akusatiboa du).

Eraitza horiek, afasiaren ikerkuntzako beste ebidentzia batzuekin batera, ondorengo berresten dute: bi hizkuntzak eta hizkuntza-osagaiak neurofuntzionalki bereizita daude elebidunaren burmuinean.